



NIGHT&CO
Let's party with us

NIGHT&CO

KANALAK

Gure enpresak erabiliko dituen kanal zehatzak:

1. KOMUNIKAZIO-KANALAK


Alde batetik, **kanal zuzena** izango dugu. Kanal hau gure webgunea izango da, bertan gure aplikazioak zer nolako aukerak izango dituen azalduko da. Webgune hau gure taldeko kontaktuez baliatuz aurrera eramango dugu, informatikan espezializatuak direnak. Guk aplikazioan aldaketak egin ahal izango ditugu eta gertatzen den guztia kontrolatu.

Beste aldetik, **zeharkako kanala** izango dugu. Gure aplikazioak publizitatea eta hauek salduko dituzten pertsonaia ezagunak izango ditu. Alde batetik, Youtuber nahiko ezagunekin hitz egingo dugu, **Raquelreitz** youtuberrarekin kontaktuan gaude, 300.000 jarraitzaile baino gehiago dituena. Beste aldetik, Miren Arrietarekin kontaktuan egongo gara, Goazeneko antzezlea dena. Abantaila honetaz baliatuz, jendeari hurbilduko gara eta sare sozialek jende gaztean eragin handia dutenez, oso ondo etorriko zaigu, gure enpresa batez ere jende gazteari zuzenduta baitago.

Raquelreitz-ek Instagram-eko argazki baten bidez egingo du aplikazioaren publizitatea. Miren Arrietak bere Instagramera bideo bat igoko du gure aplikazioaren ezaugarriak azalduz.



MIREN ARRIETA





NIGHT&CO
Let's party with us

RAQUEL YAÑEZ





Hona hemen, Raquelek Instagram sare sozialera igotako argazkia. Horrela, publizitatea egin digu, eta ezagutzera eman gara.

2.BANAKETA-KANALAK

Aplikazioaren bidez sarrerak erosita baldin badaude, aplikazioa erakustearekin balioko luke sarrera gisa diskotekan sartzeko.

3. SALMENTA-KANALAK

Aplikazioaren abantaila handi bat da, ez duzula RRPP batekin egon behar sarrera lortzeko, mugikorraren bidez sarrera erosi ahal duzu eta diskotekan mugikorra erakutsi dezakezu. Sarrera erosteko kreditu txartela edo diskotekan bertan ordaindu ahal da, horregatik oso eroso da.

